# HUELGA GENERAL DE TRABAJADORES Y ESTUDIANTES EL 21 DE MAYO

## ¡Obreros y estudiantes, unidos y adelante!

Ikasle Sindikatua

Desde Ikasle Sindikatua llevamos defendiendo la necesidad de una huelga general de 24 horas desde el inicio de curso, para paralizar los planes de Bolonia y el resto de ataques a la educación pública, defender los empleos y los salarios y frenar los ataques de la patronal contra los salarios, el empleo y las condiciones laborales. Por esta razón apoyamos la convocatoria de ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, EHNE e HIRU y llamamos a todos los estudiantes a secundarla y acudir a las manifestaciones. También consideramos necesario que los dirigentes de CCOO y de UGT se sumen a esta convocatoria llegando a la máxima unidad de acción, y a que extiendan la huelga general al resto del estado.



### Contra el paro y los regalos a los banqueros

En Hego Euskal Herria en lo que llevamos de año los Expedientes de Regulación de Empleo han afectado a miles de trabajadores y el paro es un 50% más alto que hace un año. Estos datos son incluso peores para los jóvenes vascos, que hemos visto incrementar un 87% nuestra tasa de desempleo. En el resto del Estado la situación también es alarmante: el paro entre los jóvenes de16 a 19 años es del 46% y del 25’3% entre los 20 y los 24 años. Esto se debe a que gracias a los contratos temporales cientos de miles de jóvenes se han quedado de la noche a la mañana en la calle.

Los capitalistas están tratando de que paguemos la crisis que ellos han provocado. Miles de millones de euros están saliendo de los bolsillos de las familias trabajadoras para que, en nombre del rescate de la banca, acaben en las ya de por si abultadas billeteras de los banqueros. Por eso desde Ikasle Sindikatua defendemos la nacionalización de los bancos bajo control de los trabajadores y sus organizaciones para garantizar un subsidio de desempleo indefinido para todos los parados, evitar los desahucios de familias trabajadoras, e invertir miles de millones en viviendas sociales, educación, sanidad pública, y equipamientos culturales en nuestras ciudades. También defendemos nacionalizar las fábricas que cierran y reducir la jornada laboral sin reducción salarial para mantener los puestos de trabajo. Esto permitiría que no fuéramos los jóvenes y los trabajadores los que pagásemos la crisis.

### En defensa de la enseñanza pública

La huelga general es un paso adelante en la unificación de los distintos conflictos y reivindicaciones. Desde Ikasle Sindikatua emplazamos a los dirigentes sindicales para que en esta huelga del 21 de mayo se exija con claridad y contundencia la paralización inmediata de los planes de Bolonia, que suponen la privatización de la enseñanza universitaria y la expulsión de miles de hijos de trabajadores de la universidad pública.

### Ante el Gobierno PSE-PP

Millones de trabajadores y de jóvenes votaron a Zapatero para cerrar el paso al PP, pues ya sufrimos durante ocho años sus políticas reaccionarias. Pero la dirección del PSOE, en lugar de cargar la crisis sobre los capitalistas, la está cargando sobre nuestras espaldas, recortando derechos laborales y democráticos. El PSOE ha cedido a las presiones del PP. Aprobaron la Ley de Partidos y otros recortes de derechos democráticos que son utilizados contra activistas y organizaciones de la izquierda , así como para impedir que una parte importante de la juventud y la población de Euskal Herria pueda expresarse políticamente. El gobierno de Patxi López con 25 diputados en el parlamento vasco va a ser rehén de la derecha española y vasca que tienen 45 diputados. No podrán aprobar ninguna ley que toque los intereses de la burguesía española y vasca. Para defender a los trabajadores el PSOE debería estar en la oposición y, apoyándose en los sindicatos y las organizaciones de izquierda, debería defender los derechos democráticos y una política auténticamente socialista.

### Todos a la huelga general

La huelga general es una magnífica oportunidad para fusionar nuestras demandas con las del conjunto de la clase trabajadora, con las de los profesores y del personal no docente, que sufren también los ataques a la educación pública. Para ello, desde Ikaslee Sindikatua proponemos la organización de asambleas conjuntas de estudiantes y profesores para debatir las reivindicaciones de la lucha, organizar comités de huelga y salir todos el día 21 a la calle, logrando una huelga general masiva.

www.sindicatodeestudiantes.org

Ikasle Sindikatua

**¡En defensa de todos los puestos de trabajo!**
**¡Por un subsidio de desempleo indefinido de 1.100 euros al mes hasta encontrar empleo!**
**¡Por un puesto de trabajo digno al terminar los estudios!**
**¡En defensa de la enseñanza pública!**
**¡Retirada inmediata de los planes de Bolonia!**
**¡Que la crisis la paguen sus responsables: los capitalistas!**
**¡Contra el capitalismo, lucha por el Socialismo!**
**ORGANÍZATE Y LUCHA CON IKASLE SINDIKATUA**

Ikasle Sindikatua

# LANGILEEN ETA IKASLEEN GREBA OROKORRA MAIATZAREN 21EAN

## Langileak eta ikasleak, elkartuta aurrera!

Ikasle Sindikatutik 24 orduko grebaren beharra defendatzen daramagu ikasturtea hasi zenetik, Bolognako planak eta hezkuntza publikoaren aurka jasotzen ditugun erasoak geldiarazteko, lana eta soldatak defendatzeko eta soldaten, lanaren eta lan-baldintzen aurkako patronalaren erasoak gelditzeko. Horregatik, ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, EHNE eta HIRUren greba deialdia sostengatzen dugu, eta ikasle guztiei deitzen diegu deialdiarekin bat egiteko eta manifestaldietara joateko. Gure ustez, oso garrantzitsua da CCOO eta UGTko agintariak greba honetara gehitzea, borroka bateratu batera heltzeko eta ondoren greba estatu osora zabaltzeko.

### Langabeziaren eta bankarientzako oparien aurka



Urtearen hasieratik hona, Hego Euskal Herrian, Enplegu Erregulazio Espedienteek milaka langileri eragin diete eta langabezia iazkoa baino %50 altuagoa da. Datu hauek euskal gazteontzat txarragoak dira, gure langabezia tasa %87 hazten ikusi dugulako. Estatuan ere egoera oso larria da: gazteen arteko langabezia %46koa da 16 eta 19 urte bitartean eta %25'3koa 20-23 bitartean. Hau aldi baterako kontratuei esker ehunka mila gaztek egun batetik bestera bere burua lanik gabe ikustearen ondorioa izan da.

Kapitalistek, eurek sortu duten krisialdia guk ordaintzea nahi dute. Milaka milioi euro langile familien poltsikoetatik ateratzen ari dira, bankuak erreskatatzearen izenean, dagoeneko ondo beteta dauden bankarien poltsikoetan sartzeko. Horregatik, Ikasle Sindikatutik bankuen nazionalizazioa defendatzen dugu langileen eta hauen erakundeen kontrolpean, horrela langabezia sorospen mugagabe bat bermatzeko langabetu guztientzat, langile familien etxe-kaleratzeak galarazteko eta milaka milioi euro inbertitzeko gizarte etxebizitzetan, hezkuntzan, osasun publikoan eta gure hirietako ekipamendu kulturalen hobekuntzan. Defendatzen dugu baita ere, ixten dituzten fabriken nazionalizazioa eta lan jardunaldiaren murrizketa soldata murrizketarik gabe lanpostuak mantentzeko. Honek, gazteak eta langileak krisi hau ordaintzen dutenak ez izatea ahalbidetuko luke.

### Hezkuntza publikoaren alde

Greba orokorra pauso bat da gatazka eta eskaera desberdinak batzeko. Ikasle Sindikatutik, agintari sindikalei eskatzen diegu maiatzaren 21eko greban, hezkuntzaren pribatizazioa eta langileen milaka seme-alaba unibertsitate publikotik kaleratzea suposatzen duen Bolognako planen gelditzea exijitzeko argi eta garbi.

### PSE-PP gobernuari buruz

Milioika langile eta gaztek Zapaterori eman zioten botoa PPren gobernu bat oztopatzeko, zortzi urtetan zehar sufritu baikenituen euren politika erreakzionarioak. Baina PSOEren zuzendaritza, krisia kapitalisten aurka kargatu beharrean, gure bizkarrera kargatzen ari da, eskubide demokratiko eta laboralak murriztuz. PSOEk atzera egin du PPren presioen aurrean. Ezkerreko ekintzaileen eta erakundeen aurka erabiliak izaten ari diren Alderdien Legea eta eskubide demokratikoen beste murrizketa batzuk onartu zituzten, Euskal Herriko biztanleriaren eta gazteriaren zati garrantzitsu bati politikoki adieraztea eragotziz. Patxi Lopezen gobernua, 25 legebiltzarkiderekin eusko legebiltzarrean, 45 legebiltzarkide dituzten eskuin espainiarraren eta euskal herritarraren gatibua izango da. Langileak defendatzeko PSOEk oposizioan egon beharko luke eta, sindikatuetan eta ezkerreko erakundeetan oinarrituz, eskubide demokratikoak eta benetako politika sozialista bat defendatu beharko lituzke.

### Denok greba orokorrera

Greba orokorra izugarrizko aukera da gure eskaerak langile klasearen eskaerekin batzeko, eta baita irakasle eta irakasle ez diren ikastetxeetako langileen eskaerekin ere, hezkuntza publikoaren aurkako erasoak jasaten baitituzte hauek ere. Horretarako, Ikasle Sindikatutik irakasleen eta ikasleen asanblada bateratuak proposatzen ditugu borrokaren eskaerak eztabaidatzeko, greba komiteak eratzeko eta 21ean denok kalera irteteko, greba orokor masibo bat lortzeko.

www.sindicatodeestudiantes.org
Ikasle Sindikatua

**Lanpostuen defentsan!**
**1.100 euroko langabezi sorospena lana aurkitu arte!**
**Ikasketak amaitzean lanpostu duin bat!**
**Hezkuntza publikoaren defentsa!**
**Bolognako planen berehalako gelditzea!**
**Krisia bere arduradunek ordaindu dezatela: Kapitalistek!**
**ANTOLATU ETA BORROKATU IKASLE SINDIKATUAREKIN!**

**www.sindicatodeestudiantes.org**


**· BIZKAIA:** 944 790 381 - bizkaia@sindicatodeestudiantes.org **· GASTEIZ:** 945 231 202 - araba@sindicatodeestudiantes.org **· IRUÑA:** nafarroa@sindicatodeestudiantes.org